

OSTIRALEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2018ko URRIAREN 19a. 18:30.

OSTIRALA (2018/10/19)

Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu batez ere hegoaldean. Zaparrada isolaturen bat bota dezake Araba hegoaldean. Ipar/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da.

Tenperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	18
Bilbao	19
Gasteiz	18
Arrasate	19

LARUNBATA (2018/10/20)

Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu bereziki egunaren lehen zatian; orduan baliteke zirimiria egitea han-hemenka kantauri isurialdean. Araba hegoaldean zaparrada isolaturen bat bota dezake. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, eta arratsaldean iparraldera eta ipar-ekialdera aldatuko da. Tenperatura minimoetan aldaketarik ez eta maximoak gutxi igoko dira.

Tenperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	15	20
Bilbao	15	21
Gasteiz	12	20
Arrasate	14	21

IGANDEA (2018/10/21)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira eta baliteke Arabako zenbait lekutan eguerdira arte irautea. Zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egongo da, bero-hodei batzuekin arratsaldean. Eki-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da; goizean hego-ekialdekoa nagusituko da eta arratsaldean ipar-ekialdekoa kantauri isurialdean. Tenperatura minimoetan aldaketarik ez eta maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira.

ASTELEHENA (2018/10/22)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Zerua tarteka hodeitsu egongo da, bereziki mendebaldean. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, ipar-ekialdekoa nagusi izanik; arratsaldean indartu egingo da eta egunaren bigarren partean bolada gogorak izango dira. Tenperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira eta maximoak nahikoa jaitsiko dira.